



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urtarrilaren 20a

6. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Memoria Historikoaren Legea bete eta gara dezan eta erregimen frankistak eraildako pertsonen memoriaren eta errekonozimenduaren alde lan egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Euro-para iritsitako asilo-eskaeren eta errefuxiatuen lekualdatze-prozesua azkartu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ekintza zehatzak abiaraz ditzan, Sakanaren garapen ekonomiko eta soziala etengabe bultzatzera bideratuak. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere babesa eman diezaion Merkataritzari eta Inbertsioari buruzko Akordio Transatlantikoari (TTIP). Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da konpromisoa har dezan “Magnesitas de Navarra” enpresaren proiektua interes publikokoa deklaratzeko, eta bidezkoak diren konpentsazio-neurriak har ditzan jarduera gauzatu ahal izateko. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Parlamentuko Osoko Bilkura eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dira konpromisoa har dezaten, pertsona inputatuen agerraldirik ez eskatzekoa eta halako pertsonarik ez gonbidatzekoa berarekin zerikusia duen prozesu penalen arrazoi, xede eta inguruabarrak azaltzera. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira deusezta dezaten Konstituzioaren 135. artikulua erreforma eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten. Mozioa erretiratzea (5. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- 1/2015 Foru Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2016. urtera luzatzen duena. Osoko Bilkurak baliozkotua (6. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Memoria Historikoaren Legea bete eta gara dezan eta erregimen frankistak eraildako pertsonen memoriaren eta errekonozimenduaren alde lan egin dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko urtarrilaren 14an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Memoria Historikoaren Legea bete eta gara dezan eta erregimen frankistak eraildako pertsonen memoriaren eta errekonozimenduaren alde lan egin dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du kontusail bat ezar dezan, guxtienez ere 150.000 eurokoa, Memoria Historikoaren Legea garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du aipatu kontusaila erabil dezan hilobi komunen mapa bat egiteko, betiere azken xedetzat harturik hilotzak lurpetik ateratzeko plan nazional bat egitea, bai eta diktadura frankista gorensten duten sinbolo eta monumentuak kendu edo haiei beste esanahi bat emateko plan bat egiteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Lehendakaritza Ministerioan estatu idazkaritza bat sor dezan, bai eta koordinazio organo gisa funtzionatuko duen ministerioarteko agentzia bat ere, ondoko helburuak izanen dituztenak:

– Gerra Zibilean eta diktadura frankistan sorturiko auzitegiek emandako epaiak baliogabetzea.

– Gizateriaren aurkako krimenen biktima guztiei justiziaren babesa erraztea.

– Giza eskubideen eta memoria historikoaren arloko jurisdikzio unibertsalaren berreskuratzea eta aplikazioa sustatzea.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lanean jarrai dezan 1936ko Altxamenduaren ondorioz Nafarroan eraildako pertsonen memoriaren eta errekonozimenduaren alde."

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Europara iritsitako asilo-eskaeren eta errefuxiatuen lekualdatze-prozesua azkartu dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko urtarrilaren 14an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Europara iritsitako asilo-eskaeren eta errefuxiatuen lekualdatze-prozesua azkartu dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion Europara iritsitako asilo-eskatzaileen eta errefuxiatuen lekualdatze-prozesua azkartu dezan, hartutako konpromisoari jarraikiz.

2. Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eskain diezaion Ceutako eta Melillako etorkinen aldi baterako harrera-etxeetan dauden asilo-eskatzaileak Nafarroako Foru Komunitatean berehala hartzeko aukera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ACNUR-ekin kontakta dezan, bai eta errefuxiatuekin lan egiten duten GKE-ekin ere, esaterako eta besteak beste CEAR edo Gurutze Gorriarekin, haiei eskaintze aldera Nafarroak asilo-eskatzaileak hartzeko aukera, zeinak une honetan jadanik egoera prekario eta ahulean baitaude Estatuan".

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintza zehatzak abiaraz ditzan, Sakanaren garapen ekonomiko eta soziala etengabe bultzatzera bideratuak.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko urtarrilaren 14an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintza zehatzak abiaraz ditzan, Sakanaren garapen ekonomiko eta soziala etengabe bultzatzera bideratuak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekintza zehatzak abiaraz ditzan, Sakanaren garapen ekonomiko eta soziala etengabe bultzatzera bideratuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak jar ditzan, Sakana 2020 Plan Estrategikoa oso-osorik garatzeko".

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere babesa eman diezaion Merkataritzari eta Inbertsioari buruzko Akordio Transatlantikoari (TTIP).**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Javier García Jiménez jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere babesa eman diezaion Merkataritzari eta Inbertsioari buruzko Akordio Transatlantikoari (TTIP):"

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2015eko azaroaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromisoa har dezan "Magnesitas de Navarra" enpresaren proiektua interes publikokoa deklaratzeko, eta bidezkoak diren konpentsazio-neurriak har ditzan jarduera gauzatu ahal izateko.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

José Javier Esparza Abaurrea jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromisoa har dezan 'Magnesitas de Navarra' enpresaren proiektua interes publikokoa deklaratzeko, eta bidezkoak diren konpentsazio-neurriak har ditzan jarduera gauzatu ahal izateko"

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2015eko azaroaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Parlamentuko Osoko Bilkura eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira konpromisoa har dezaten, pertsona inputatuen agerraldirik ez eskatzekoa eta halako pertsonarik ez gonbidatzekoa berarekin zerikusia duen prozesu penalen arrazoi, xede eta inguruabarrak azaltzera.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Iñaki Iriarte López jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Parlamentuko Osoko Bilkura eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira konpromisoa har dezaten, pertsona inputatuen agerraldirik ez eskatzekoa eta halako pertsonarik ez gonbidatzekoa berarekin zerikusia duen prozesu penalen arrazoi, xede eta inguruabarrak azaltzera.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2015eko azaroaren 20ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira deusezta dezaten Konstituzioaren 135. artikularen erreforma eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Eduardo Santos Itoiz jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez, zeinaren bidez Espainiako Gobernua, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen ziren deusezta zezaten Konstituzioaren 135. arti-

kuluaren erreforma eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu zitzaten. Mozioa 2015eko abenduaren 7ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**1/2015 Foru Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2016. urtera luzatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK BALIOZKOTUA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko urtarrilaren 14 egindako Osoko Bilkuran, baliozkotu zuen 1/2015 Foru Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2016. urtera luzatzen duena. Foru lege dekretu hori 2015eko abenduaren 29ko 257. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2015eko abendua-

ren 30eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---



